



**IRAKASKUNTZA-GIDA** 2023/24

**Ikastegia** 160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.** Zehaztugabea

**Plana** GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa** 3. maila

**IRAKASGAIA**

25940 - Gizarte Politika

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Gizarte politika irakasgaiak gizarte politikaren oinarriak jorratzen ditu, hau da, bere definizioa, aurrekariak eta oinarri teoriko zein ideologikoak, beraien gainean oinarritzen baita. Ondoren, Ongizatezko Estatuaren ibilbidea aztertuko da, bere sorrera, garapen eta krisiekin. Horrek garamatza gizarte politika maila politiko-administratibo eta eremu guztietan aztertzea, alegia, gizarte segurantzaz, enplegua, osasungintza, hezkuntza eta justizia. Modu espezifikoagoan, gizarte politikak eta gizarte langintzak mantentzen duten harremanari arreta eskainiko zaio.

Irakasgai hau "Gizarte langintzaren testuinguru instituzionala" izenburua duen Modulokoa da.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

1. Esku-hartze profesionalerako oinarriko tresna gisa, baliabide sozialak identifikatzea eta legedia ezagutzea, hausnarketa kritikoa sustatzeko asmoarekin. Horrek ahalbidetuko du erakunde publikoen, hirugarren sektoreko elkarten eta enpresen antolaketa, kudeaketa, zuzendaritza eta koordinaketa hobetzeko estrategiak osatzea.
2. Gizarte politikaren oinarriak eta bere norabide ezberdinak ezagutzea marko konparatibo batean eta gizarte langintzaren teoria zein praxiarekin dauzkan inplikazioak ulertzea.
3. Ongizate sozialerako politiken artikulazio territorial eta sistemikoa ulertzea eta ebaluatzea, baita ere horien emaitzak aztertzea, diseinu, gauzaperen eta ebaluaketa ikuspegietatik.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1. Gizarte politikaren oinarri eta kontzeptuak
2. Ongizatezko Estatuak: sorrera, garapena eta krisia
3. Europar gizarte politika
4. Gizarte politika sektorialak:
  - Gizarte politika eta gizarte segurantzaz
  - Gizarte politika eta osasungintza
  - Gizarte politika eta enplegua
  - Gizarte politika eta hezkuntza
  - Gizarte politika eta gizarte zerbitzuak
  - Gizarte politika eta justizia
  - Gizarte politika eta etxebizitza
  - Gizarte politika eta aisiladia, kultura zein kirola
  - Gizarte politika eta adineko pertsonak
  - Gizarte politika, behartsutasuna eta bazterketa soziala
5. Gizarte politika eta gizarte langintza

**METODOLOGIA**

Klase magistralak. Ikasgaia ikuspuntu teoriko batetik landuko da: oinarriko kontzeptuak, argibide teorikoak, prozesu sozialen azalpenak, etabar.

Klase praktikak. Klase magistraletan landutako gaiak modu ezberdinez sakonduko dira: irakurgaiak, taldeko eztabaidak, ariketak, etabar. Zenbait kasutan, praktikak irakasleari entregatuko dira. Kasu hauetan, ikasleek aldez aurretik jakingo dute (bai zeregina, bai epea).

**IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5		22,5						

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak  
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

**EBALUAZIO-SISTEMAK**

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

**KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK**

- Garatu beharreko proba idatzia % 60



- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Banakako lanak % 10
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

#### **OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

##### **EBALUAKETA JARRAIKIA:**

- amaierako notaren %60a = idatzizko proba.
- amaierako notaren %40a = taldezkako lana.

Ezinbestekoa izango da idatzizko proba eta taldezkako lana gainditzea irakasgaia gainditu ahal izateko.

##### **AMAIERAKO EBALUAKETA:**

- Amaierako ebaluaketaren kasuan, ebaluatu beharreko edukiak eta ehunekoak berdinak izango dira, izan ezik atal praktikoa banakako lan batean oinarrituko delarik. Kasu horretan, idazlana idatzizko proba egunean entregatu beharko da.
- Atal praktikoa gainditu baina ikasgaia bere osotasunean gainditu ez duen ikasleak, amaierako nota gisa edukiko du idatzizko proba lortutako emaitza.

##### **EBALUAKETAN KONTUAN HARTZEKO:**

"Normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrek edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. (Graduko Titulazio ofizialeko ikasleen ebaluaziorako arautegia".

"UPV/EHUn honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkkotzat ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan adademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiatzea, hau da, ignoratzen lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazi akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan".

"Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaiaren kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da" (8.3. art.).

##### **DEIALDIARI UKO EGITEA:**

"Etengabeko ebaluazioaren kasuan: "deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari" (12.2 art).

Azken ebaluazioaren kasuan: "azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea" (12.3 art).

#### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ohiko deialdian bezalako arau eta jarduerak jarraituko dira.

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

ALEMÁN, C y FERNÁNDEZ, T. (coords.) (2006). Política Social y Estado del Bienestar. València: Tirant lo Blanch  
FERNÁNDEZ, T. y DE LA FUENTE, Y. (coords.) (2009). Política Social y Trabajo Social. Madrid: Alianza.  
MANZANOS C. (coordinador) (2014): ¿Cómo afrontar la futura sociedad de la exclusión? Precariedad, enfermedades mentales, adicciones y encierro, Vitoria-Gasteiz, Ikusbide.



## BIBLIOGRAFÍA

### Oinarrizko bibliografia

- ALEMAN C. y GARCÉS F. (coords.) (2000): Política social. Madrid: McGraw-Hill
- ALEMÁN, C y FERNÁNDEZ, T. (coords.) (2006). Política Social y Estado del Bienestar. València: Tirant lo Blanch
- BALLESTER BRAGE, L. (1999): Las necesidades sociales: teorías y conceptos básicos. Madrid: Síntesis
- BORGIANI E. y MONTAÑO (Org.) (2004): La política social hoy. Sao Paulo: Cortez editora.
- COBO SUERO, J.M. (1993): Contribución a la crítica de la Política Social. Madrid: Universidad Pontificia de Comillas
- COHEN S. (1988): Visiones de Control Social, capítulo 1: "Las pautas principales", Barcelona, PPU.
- CONTRERAS, F. (1994): Derechos sociales. Teoría e ideología. Barcelona: Tecnos.
- FERNÁNDEZ, T. y DE LA FUENTE, Y. (coords.) (2009). Política Social y Trabajo Social. Madrid: Alianza.
- FOUCAULT, M. (1992) Genealogía del Racismo. De la guerra de las razas al racismo de estado, Madrid, La piqueta.
- HELLER, A. (1996) : Una revisión de la teoría de las necesidades. Barcelona : Paidós.
- HERRERA, M. I CASTÓN, P. (2003). Las políticas sociales en las sociedades complejas. Barcelona: Ariel
- MANZANOS C. (coordinador) (2014): ¿Cómo afrontar la futura sociedad de la exclusión? Precariedad, enfermedades mentales, adicciones y encierro, Vitoria-Gasteiz, Ikusbide.
- MORENO L. (2013): La Europa social. Crisis y Estado de bienestar. Madrid: Península.
- PAYNE, M. (1995): Teorías contemporáneas de trabajo social. Barcelona: Paidós.
- SOTELO I. (2010): El Estado social. Antecedentes, origen y declive. Madrid: Trotta.
- SMALE, G.. TUSON , G. Y STATHAM, D.(2003): Problemas sociales y trabajo social. Madrid: Morata
- TITMUSS, R. (1974): Introducción a la política social. Madrid: Ariel.
- VITERI DÍAZ, G.: (2007): Política Social: elementos para su discusión, Edición electrónica. Texto completo en [www.eumed.net/libros](http://www.eumed.net/libros)
- VV.AA (2013): Los Estados del bienestar en la encrucijada. Madrid: Tecnos.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

### Aldizkariak

### Interneteko helbide interesgarriak

## OHARRAK